



Intxaurrondo

Otxokiko 1 Formula zirkuitua

Egunero, Otxoki pasealekutik, auto asko igaro ohi dira, batez ere, Garberarako bidean. Auzotarrek diotenez, ibilgailuak azkarregi ibiltzen dira, baina hala ere, Udalak ez du autoen abiadura murrizteko neurririk hartu.

Gladys Villalba

Garbera merkataritza guinea egin aurretik, Otxoki pasealekutik egunero 32.000 auto inguru igarotzen zirela esan digu Intxaurdi Auzo Elkarteke Roberto Oterok. Garbera zabaldu zutenetik, berriz, askoz ibilgailu gehiago dabilta: "Udalean datu zehatzik eman ez diguten arren, ziur gaude 60.000 bat auto igarotzen direla egunero Otxokitik", adierazi digu Oterok. Dena dela, auto kopurua baino abiadura da auzotar hauen kezka. Roberto Oterok dioenez, Otxoki pasealekua oso arriskutsua da, batik bat autoen abiadura murrizteko jarritako seinaleak ez direlako batera eraginkorrak: "Batetik, gehieneko abiadura 50 kilometrokoa dela dioen seinale

bakarra dago. Bestetik, Otxoki parke parean, semaforo berezi bat dago —oinezkoek botoi


bat sakatu behar dute eta segundo batzuk geroago berde jartzen zaie semaforoa—. Baina, hala ere, oso gauza bitxia gertatzen da semaforo horrekin. Izan ere, gidari gehienak, bertara hurbildu ahala, motelago joan ordez, azkarrago doaz. Guk, besteak beste, baimendutako abiadura gaindi-

Autoen abiadura gutxitzeko neurriak hartzea nahi dute


tzean gorri jartzen den semaforo horietako bat ipintzea nahi dugu".

Botatako farolak

Autoen abiadura handiegiak istripuak eragin ditu Otxoki pasealekuan. Intxaurdiko ki-deak esan digunez, "gidari batek baino gehiagok autoaren kontrola galdu du eta farola bat bota". Bestalde, Intxaurdikoek bi norabideen artean, metalezko hesia jartzea eskatu dute. Auzo elkartekoek us-tez, gaur egun bi norabideen artean dagoen hesia ez da egokia: "Auto bat edo beste egungo banatzailea zeharkatu eta kontrako norabidera joan izan da", adierazi digu Roberto Oterok.



TABERNA



Mota guztietako pintxo hotzak eta beroak

MARTINEZ


Abuztuaren 31 kolea 13
Tel.: 943 424965



GANBARA

taberna • erretegia


San Jeronimo 21 - Tel.: 943 422575 - DONOSTIA



TABERNA JATETXEA

Fermin Kalbeton 3
Tel.: 943 429875

Parte Zaharreko mokadurik gosoenak!



JOSE MARI

JATETXEA

- Euskal sukaldaritza tradizionala
- Pintxoetan aukera zabala
- Ogitartekoak

Fermin Kalbeton 5 • Tel.: 943 424645

ETXANIZ

TABERNA
Brotxetetan adituak

Fermin Kalbeton 24
• Tel.: 943 426295